

Euskaltzaleek gogor salatu dute Arabako Aldundiak Euskara Zerbitzua ezabatu izana

Kontseilua desagertarazitakoaren ordezkoa ezin daitekeela izan adierazi dute

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

Euskaltzaleon Elkargu-
nea taldeak gogor salatu
du PPk Arabako Diputa-
zioan azken urteotan
lanean aritutako Euskara
Zerbitzua ezabatu izana.
Gainera, Pedro Sancristo-
val diputatuak iragarrita-
ko Euskararen Kontseilua
desagertarazitako orga-
noaren ordezkoa ezin dai-
tekeela izan zehaztu du.

HASERREA sortu dute Pedro Sancristoval Arabako Kultura diputatuak legealdirako aurreikuspenak aurkezteko agerraldian esandakoek Euskara Zerbitzuaren desagertpenaz.

Gasteizko talde euskaltzaleak koordinatzen dituen Euskaltzaleon Elkarguneak prentsa ohar batez ukatu du aipatutako zerbitzua euskarak behar zuena zenik, «baina minimo batzuk bete ditu eta abiapuntu positiboa izan da».

Euskaltzaleen aburuz, behin desagertu ondoren, ez dago batere argi «nork eta zein irizpiderekin» egingo dituen Euskara Zerbitzuaren esku ziren lanak. «Bete gabe geratuko balira orain arte emandako aurrerapausu guztiak bertan behera geldituko lirarteke», ohartarazi du.

Kultura diputatuak Euskararen Kontseilua eratuko duela ziurtatu zuen, baina Euskaltzaleon Elkargunearen arabera, inolaz ere ezin



JOSEBA OLALDE

EHEko kideak Gasteizen euskararen aldeko mobilizazio batean.

daiteke izan Euskara Zerbitzuaren ordezkoa: «Euskara Zerbitzuak zituen ardurak bete gabe geratzen dira». Bestetik, zalantzan jarri du PPren asmoa egitura aldaketa soila denik.

Azkenik, gogora ekarri die foru mandatariei Arabako gizarteak agertutako euskararen aldeko borondate irmoa, Bai Euskarari kanpainen edo matrikulazio kanpainen. «Arabako Diputaziok ezin dio inolaz ere borondate honi muzin egin», gaineratu du euskaltzaleen oharrak.

Erabaki «sendoa» da ezabaketari buruzkoa

Beste alde batetik, Sancristovalek eta Herri Arduralaritzarako foru zuzendaritzaren arduradunek bilera egin zuten atzo, Arabako Aldundiko informazio iturrien arabera, «foru langileen euskalduntzearen gaineko ardura Herri Arduralaritzara igaro baita» PP agintzaritzara heldu ondoren gertatutako aldaketen eraginez.

Aipatutako iturriek adierazi bezala, «aurrekontu kopu-

ruak zehazteko batzarra» izan zen, eta era berean, Sancristovalek iragarritako berregiturak «erabaki sendoa» direla eta inongo atzerajotzerik ez dela planteatu nabarmendu zuten.

Halaber, Mikel Mintegi aurreko diputatuaren garaian bezalako politika izango dela ziurtatu dute, eta horrela, udal nahiz elkarte-entzako dirulaguntzak edo ekitaldiak (Gasteizko Kultur-Etxekoak, kasu) bere horretan jarraituko dutela zehaztu dute.

Unibertsitaterako hauta-proban aldaketa batzuk egitea onartu du Espainiako ministro kotseiluak

■ *Batazbesteko notan garrantzi handiagoa izango dute batxilergoko emaitzek azterketakoak baino*

Europa Press / Madril

ATZO Espainiako Ministro Kontseiluak Errege dekretu baten bidez unibertsitaterako hauta-proban aldaketa batzuek egitea erabaki zuen. Aldaketa horiek 2.000 urteko deialdian jarriko dira indarrean. Berrikuntzarik nabarmenena batxilergoko emaitzak batazbesteko notan izango duen garrantzia da. Orain arte batxilergoko notak eta hauta-probako emaitzak balore bera zuten, eta biei garrantzi bera emanez ateratzen zen batazbestekoa, orain, ordea, %60ko garrantzia izango du batxilergoko emaitzak. Espainiako Hezkuntza ministro Mariano Raxoiren arabera modu honetan ikasleei «epe luze batean egindako lana gehiago sarituko zaie».

Halaber, Errege dekretu honi jarraikiz garrantzi handiagoa izango dute unibertsitaterako hauta-probako etsaminean ikasleen ikasgai zehatz batzuek, hain juxtu unibertsitatean egin nahi dituzten ikasketekin harremana dutenak. Azterketako notako %80 ikasgai horietako emaitzek baldintzatuko dute.

‘Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna’ kalean

■ *Bostak Bat taldearen lanak 36.705 sarrera ditu*

Gorane Agirre / Bilbo


BOSTAK BAT taldeak landu duen *Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna* kalean da. Liburukiarekin batera CD bertsioa banatuko da doan.

Gotzon Aurrekoetxea hiztegia egin duen taldearen koordinatzaileak Adorez bildumako 8. lan honek eman duen «jauzi ikaragarria» nabarmendu zuen, 36.705 sarrera, 153.000 sinonimo eta 27.318 antonimo biltzen baititu.

Hiztegian egun ikertuta dauden sinonimo guztiak

daudela azaldu zuen Aurrekoetxeak, «osoa eta exhaustiboa» dela gaineratuz. Hiztegiak euskalkietan aurkitzen diren aberastasunak biltzea asmo badu ere, aurreko lanean bezala ez du euskalkiei buruzko aipamenik egin. «Orain euskalkien laburdurak sartzea errakuntza handia da euskararen estandarizazioan dihardungunontzat», esan zuten.

Hilabete honetan argitara eman den hirugarren euskarazko sinononimo hiztegia da honakoa.



XOUSE SIMAL

Bostak Bat taldeko partaideak hiztegi berria aurkezten atzo.